

b) Aurkeztu beharreko agiriak: begiratu administrazio klausula berezien agiria.

c) Aurkezteko lekua:

1. Erakundea: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

2. Helbidea: Probintzia plaza, 5-behea.

3. Herria eta posta kodea: 01001 Vitoria-Gasteiz.

d) Lizitatzailak eskaintzari eutsi behar dion epea: eskaintzak irekitzen direnetik bi hilabete.

e) Aldaerak: ez.

9. ESKAINTZAK IREKITZEA:

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia.

b) Helbidea: Probintzia plaza, 4, 5. solairua

c) Herria: Vitoria-Gasteiz.

d) Eguna: eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondorengo hirugarren egun balioduna. Eskaintzak irekitzeko eguna larunbata bada, irekitze ekitaldia hurrengo egun baliodunera arte atzeratuko da.

e) Ordua: hamar eta erdiak.

10. BESTE ZENBAIT ARGIBIDE: begiratu administrazio klausula berezien agiria.

11. IRAGARKI GASTUAK: esleipendunak ordainduko ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko maiatzaren 30a.– Herrilan eta Garraio zuzendaria, EMILIO DE FRANCISCO UGARTONDO.

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

3761

Arabako lurralde historikoan gazte plana garatu eta ezartzeko dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak.

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2008ko maiatzaren 26an finkatu zituen Arabako lurralde historikoan gazte plana garatu eta ezartzeko dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak.

1.- Dirulaguntzaren helburua

1. Deialdi honek ondokoa du helburu: gazteriaren arloan egiten diren proiektuak finantzatzea, baldin eta proiektu horiek Arabako toki erakundeei beren esparruetan gazteen beharrak asetzen dituzten egiturak finkatzen laguntzen badiete. Programak eta ekintzak jarduera lerroekin bat etorriko dira, baita udalerrietan eta kuadrilletan erabaki eta egindako gazte planak ere.

2. Gazteentzako obra eta ekipoak deialdi honetatik kanpo gelditzen dira eta, beraz, ez dira diruz lagunduko. Ez dira diruz lagunduko, halaber, deialdi honek diruz laguntzeko moduko proiektu jotzen ez dituenak. Kirolarekin, eskolarekin edo eskolaz kanpokoekin zerikusia dutenak ere ez dira diruz lagunduko.

2.- Erakunde onuradunak

1. Arabako lurralde historikoko udalek, haien mendeko erakunde autonomoek eta kuadrillek izan daitezke onuradun, salbu eta Vitoria-Gasteizko Udala eta haien mendeko erakunde autonomoak.

3.- Diruz lagundu daitezkeen proiektuak

Ondoko gaien inguruko programa eta proiektuak lagunduko dira diruz:

- Gaztegunak.
- Gazteentzako informazio bulegoak.
- Gazte programak kudeatzea helburu duten proiektuak egitea.
- Herriko gizarte eta kultura bizitzan gazteen konpromisoa eta parte hartzea bultzatzen duten proiektuak.

b) Documentación a presentar: Ver Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

c) Lugar de presentación:

1.ª Entidad: En la Sección de Registro General de la Diputación Foral de Álava.

2.ª Domicilio: Plaza de la Provincia, 5 - bajo.

3.ª Localidad y código postal: 01001 Vitoria-Gasteiz.

d) Plazo durante el cual el licitador estará obligado a mantener su oferta: Dos meses desde la apertura de las ofertas.

e) Admisión de variantes: No.

9. APERTURA DE LAS OFERTAS:

a) Entidad: Diputación Foral de Álava.

b) Domicilio: Plaza de la Provincia, 4 - 5ª planta.

c) Localidad: Vitoria-Gasteiz.

d) Fecha: Tercero de los días hábiles siguientes al último para la recepción de ofertas. En el supuesto de que el día de la apertura de pliegos correspondiera a un sábado, el acto será trasladado al siguiente día hábil.

e) Hora: Diez horas treinta minutos.

10. OTRAS INFORMACIONES: Ver Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

11. GASTOS DE ANUNCIOS: A cargo del adjudicatario.

Vitoria-Gasteiz, 30 de mayo de 2008.– El Director de Obras Públicas y Transportes, EMILIO DE FRANCISCO UGARTONDO.

INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD

3761

Bases reguladoras de la concesión de subvenciones para el desarrollo e implantación de planes de actuación para jóvenes en el Territorio Histórico de Álava.

El Consejo de Administración del Instituto Foral de la Juventud ha fijado el 26.05.08 las bases que regirán la concesión de la subvención para desarrollo e implantación de Planes de actuación para jóvenes en el Territorio Histórico de Álava.

1.- Objeto de la subvención

1. Constituye el objeto de la presente convocatoria, la financiación de proyectos que se realicen en materia de juventud y que permitan a las entidades locales alavesas ir consolidando en el territorio estructuras que progresivamente puedan satisfacer las necesidades de los y las jóvenes de sus respectivas localidades. Los programas y actividades estarán en consonancia con las líneas de actuación o los planes jóvenes elaborados y acordados en los municipios o en las cuadrillas.

2. Quedan excluidos del ámbito de aplicación de esta convocatoria y del concepto subvencionable, los gastos destinados a obras y equipamientos juveniles así como todas aquellas acciones que no estén directamente relacionadas con los proyectos subvencionables de la presente convocatoria. Igualmente, serán excluidos los gastos que sean de carácter deportivo, escolar o extraescolar.

2.- Entidades beneficiarias

1. Podrán ser sujetos de las subvenciones Ayuntamientos u Organismos Autónomos Municipales dependientes de los mismos, excepto el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz o sus Organismos Autónomos Municipales, y las Cuadrillas del Territorio Histórico de Álava.

3.- Proyectos subvencionables

Se apoyarán económicamente los programas y proyectos de actividades relativos a los siguientes temas:

- Centros para jóvenes
- Información juvenil
- Elaboración de proyectos cuyo objetivo sea la gestión de programas dirigidos a jóvenes.
- Proyectos que impulsen la participación activa y el compromiso de jóvenes en la vida social y cultural de la localidad.

- Aisialdian gazteentzako hezkuntza ez arautuko eta gizarte eta kultura arloko programak.

Balorazio irizpideak aplikatzean, proiektuaren egonkortasuna eta urtean bertan egingo den ala ez hartuko da kontuan.

Gaiko proiektu bat baino ez da onartuko.

3.- Agiriak

Proiektuetan argi zehaztu behar dira ezartze gastuak eta proiekturako finantzaketa. Erantsitako ereduari jarraikiz aurkeztu behar dira (l. eranskina), honako agiri hauekin batera:

- 1.- Alkatearen edo kuadrillako lehendakariaren ziurtagiria. Ziurtagiri horrek proiektuaren kostua eta horri aurre egiteko toki erakundeak jarriko duena jasoko ditu. Toki erakundeak, gutxienez, kostuaren % 50 ordainduko du.
- 2.- Laguntza mota honetarako dirulaguntza eskatzen den lehenengo aldia bada, tokiko gobernu batzarraren —edo, bestela, alkatearen edo proiektuan parte hartzen duen erakundeko lehendakariaren— idazkia aurkeztuko da, gazteria arloko sail arteko plan estrategikoa egiteko ardura bere gain hartuz. Plan horretan aurkeztu den proiektuko jarduerak jasoko dira.
- 3.- Udalek berek kudeatuko dituzte proiektuak, edo bestela, indarrean dauden legeekin bat etorritik, erakunde onuradunek proiektua kudeatzeko beren-beregi sortutako erakundeek.
- 4.- Langileak zeharka kontratatu behar badira, horiei hizkuntza gaitasun baliokidea eskatuko zaie, herritarren hizkuntza eskubideak eta administrazio publikoek euskara normalizatzeko dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko.

Arau horietakoren bat, noiznahi ere, ez betetzeak Gazteriaren Foru Erakundeak emandako dirulaguntza itzuli behar izatea ekar dezake.

4.- Eskaerak eta epeak

1. Eskaerak l. eranskin gisa dakarren eredu ofizialean aurkeztuko dira Gazteriaren Foru Erakundearen (Probintzia plaza, 5, 4. solairua, Vitoria-Gasteiz), edo bestela, urtarrilaren 13ko 4/99 Legeko (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legea, azaroaren 26koa, aldatu zuen) 38.4 artikuluan ezarrita dagoen eran. Alkateak edo udal erakunde autonomoko lehendakariak sinatuko du eskaera, eta halakorik izan ezean, dagokion arloko titularrak.

2. Eskaerak 2008ko uztailaren 11ko 14:30ak arte aurkeztu ahal izango dira.

3. Toki erakundeak eskaera bat baino ez da izapidetuko.

4. Eskaerak osorik bete ezean edo adierazitako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari hamar (10) egun baliodun emango zaizkio eskas diren datuak eta agiriak aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio adierazitako epean agiri edo datu horiek aurkeztu ezean, eskaerari uko egiten diola esan nahiko duela eta eskaera artxibatu egingo dela.

5. Beharrezkotzat jotzen den kasuetan, Gazteriaren Foru Erakundeak eskaerak ebazteko egoki jotzen dituen agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei. Eskatzaileak agiriak adierazitako epean aurkeztu ez baditu, eskaerari uko egin diola esan nahiko du, eta eskaera artxibatu egingo da, dagokion ebazpena eman ondoren.

5.- Hautaketa eta prozedura

1. Arabako Gazteriaren Foru Erakundeak lehiaketa bidez esleituko ditu dirulaguntzak, hori baita hainbat eskaera egon daitekeela aurrez

- Programas de educación no formal y socio-cultural en el tiempo libre, dirigidos a jóvenes.

A la hora de aplicar los criterios de valoración se tendrá en cuenta que el proyecto es de carácter estable y que se desarrolla durante el año.

Como máximo, se podrá presentar un proyecto por cada tema.

3.- Documentación

En los proyectos se deberán determinar claramente los costes de implantación y la financiación, debiendo presentarse según modelo adjunto (Anexo I) junto con la documentación que a continuación se relaciona:

- 1.- Certificación de alcaldía o del presidente o presidenta de cuadrilla aprobando el coste total del proyecto y el porcentaje de aportación por el Ente Local para la financiación del mismo, que deberá ser de al menos el 50% del coste total.
- 2.- Si es la primera vez que se solicita subvención para este tipo de ayudas, compromiso escrito de la comisión de gobierno local, o, en su defecto, de Alcaldía o Presidencia de la correspondiente entidad participe en el proyecto, de elaborar o de estar desarrollando un Plan de actuación interdepartamental en materia de juventud, dentro de su ámbito de actuación, donde se englobarán las acciones comprendidas en el proyecto presentado.
- 3.- Los Proyectos deberán acometerse mediante cualquiera de las fórmulas de gestión directa por los municipios o por entidades exclusivamente creadas o contratadas al efecto, conforme a las disposiciones legales vigentes, por la entidad beneficiaria.
- 4.- Cuando la medida implique la contratación indirecta de personal se exigirá un nivel de capacitación lingüística equivalente, que garantice plenamente los derechos lingüísticos de los ciudadanos y los deberes de las Administraciones Públicas en orden a la normalización del uso del euskera.

El incumplimiento, en cualquier momento, de alguna de estas condiciones podría dar motivo al reintegro de la subvención otorgada por el Instituto Foral de la Juventud.

4.- Solicitudes y plazos

1. Las solicitudes se podrán presentar en el modelo oficial que se adjunta como anexo I en el Instituto Foral de la Juventud, Plaza de la Provincia 5-4ª planta de Vitoria-Gasteiz, o en la forma que determina el artículo 38.4 de la Ley 4/99 de 13 de enero de modificación de la Ley 30/92 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, siendo el Alcalde o Presidente del municipio o cuadrilla quien firme la solicitud, o en su defecto, la persona titular del área de correspondiente.

2. El plazo de presentación de solicitudes será hasta las 14:30 horas del día 11 de julio de 2008

3. Solo se admitirá a trámite una solicitud por entidad local

4. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos, se requerirá al interesado para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

5. En aquellos casos en que se considere necesario, el Instituto Foral de la Juventud podrá requerir a las entidades interesadas cuanta documentación complementaria estime oportuna para proceder a la resolución de las solicitudes formalizadas. Si el peticionario requerido no presentase la documentación en el plazo que se establezca se le tendrá por desistido de su solicitud, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

5.- Selección y procedimiento.

1. La concesión de las subvenciones se realizará por el Instituto Foral de la Juventud siguiendo el régimen de concurrencia compe-

ikusten duen bakarra eta, dirulaguntza esleitzeko, eskaera horiek prozedura bakarrean konparatzen dituen. Beraz, dirulaguntzak lehiaketa bidez emango dira ondoko irizpideetan oinarrituta:

- Deialdiaren helburuarekin zerikusia duten hautatutako proiektu kopurua: gehienez, 20 puntu.
- Proiektuaren onuradun den gazte kopurua: gehienez, 20 puntu.
- Proiektua gauzatzeko, udalak jarritako dirua: gehienez, 20 puntu.
- Proiektuaren egonkortasuna eta iraupena: gehienez, 20 puntu.
- Aurten egindako proiektu berriak, onartutako planaren jarduketa lerroa jarraitzen dutenak: gehienez, 20 puntu.

2. Gazteriaren Foru Erakundeak aurreko irizpide horietan oinarrituta aztertuko ditu aurkezturiko proiektu guztiak, eta hautaturiko proiektuak finantzatzea onartuko du. Dirulaguntza aurkeztutako proiektuak lortutako puntuazioaren arabera izango da.

6.- Gehieneko zenbatekoa

Gazteriaren Foru Erakundeak deialdi honen helburu diren proiektuetarako emango duen dirulaguntzak ez du gaindituko jardueren hasierako kostuaren erdia (% 50).

7.- Aholkularitza eta koordinazioa

Gazteriaren Foru Erakundeak beharrezkoa den laguntza teknikoa eta aholkularitza eskainiko du, dirulaguntzok zirikusia duten egoerak, zalantzak eta kontsultak argitzeko. Era berean, dirulaguntza eskaera egiten duten toki erakundeei lanak egiten eta koordinatzen lagunduko die, baita aholkuak eman ere.

8.- Ebazpena

1. Gazteriaren Foru Erakundearen zerbitzu teknikoek eratu dute organo instruktorea, eta berorren txostena ikusita, ondoko pertsoez osaturiko organoak idatziko du emakida proposamena:

- Gazteriako teknikari bat
- Zerbitzu Orokorren burua
- Idazkaritza Teknikoaren burua

2. Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehen-dakariak emango du eskaerei buruzko ebaztea. Horretarako, hiru hilabete izango ditu eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera. Hiru hilabete horiek igaro eta berriazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ez dela onartu esan nahiko du. Dena den, baliteke geroago berriaz ebaztea.

3. Dirulaguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatzeak eta beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek, estatukoak zein nazioartekoak, helburu bererako laguntzak edo dirulaguntzak emateak ebazpena alda dezakete, zeren eta deialdi honetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak —berak bakarrik edo beste laguntza edo dirulaguntza batzuekin batera— ezin baitu gainditu onuradunak garatuko duen proiektuaren kostua.

9.- Ordainketa

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da. % 70 dirulaguntza ematean, eta gainerako %30a deialdian ezarritakoa betetzen duen txostena aurkeztu eta gero. Erakunde onuradunei ez zaie inolako bermerik eskatuko.

titiva, entendiéndose como tal, la que prevé una eventual pluralidad de solicitudes, requiriendo para la concesión de la subvención, la comparación en un único procedimiento de dichas solicitudes entre sí. Por tanto, la concesión de la subvención se realizará en régimen de concurso otorgándose la subvención según los criterios que se establecen a continuación:

- Nº de proyectos seleccionados relacionados con el objeto de la convocatoria (hasta un máximo de 20 puntos).
- Nº de personas jóvenes destinatarias del proyecto (hasta 20 puntos).
- Porcentaje de aportación municipal a la ejecución del proyecto (hasta un máximo de 20 puntos).
- Estabilidad y duración de los proyectos ejecutados (hasta un máximo de 20 puntos).
- Proyectos nuevos realizados en este año que se correspondan con las líneas de actuación del plan aprobado (hasta un máximo de 20 puntos).

2. El Instituto Foral de la Juventud efectuará un análisis de todos los proyectos presentados en base a los criterios anteriormente señalados y aprobará la financiación de los mismos, otorgándose la totalidad del importe disponible en proporción a la puntuación obtenida por cada proyecto presentado.

6.- Importe máximo

El importe máximo de la subvención que otorgará el Instituto Foral de la Juventud para cualquier tipo de proyecto objeto de esta convocatoria no excederá del cincuenta por ciento (50%) del coste total inicial de las actuaciones subvencionables.

7.- Asesoramiento y coordinación

El Instituto Foral de la Juventud, prestará la asistencia técnica y asesoramiento necesarios para cualquier circunstancia, duda o consulta relacionada con las presentes subvenciones y, en particular, llevará a cabo las labores de acompañamiento, asesoramiento y coordinación dirigidas a los entes locales que hayan presentado solicitud de subvención.

8.- Resolución

1. El órgano instructor lo constituirán los servicios técnicos del Instituto Foral de la Juventud, a la vista de cuyo informe se redactará la propuesta de concesión por el órgano compuesto por las siguientes personas:

- Un/a técnico/a de juventud
- El/la jefe/a de servicios generales
- El/la jefe/a de secretaría técnica

2. Las solicitudes serán resueltas por el Presidente del Consejo de Administración del Instituto Foral de la Juventud en el plazo máximo de tres meses a contar desde el día siguiente al de la finalización del plazo de presentación de solicitudes. En el caso de que transcurrido dicho plazo no conste resolución expresa de la solicitud, se entenderá que la misma ha sido denegada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

3. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de subvenciones y ayudas otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados, estatales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión; dado que el importe de las subvenciones reguladas en la presente convocatoria en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas supere el coste del proyecto a desarrollar por el beneficiario.

9.- Pago

El abono de la subvención se hará efectivo en dos pagos: el 70% en el momento de la concesión de subvención y el 30% restante una vez presentada la memoria que cumplirá los términos establecidos en la convocatoria. No se exigirá para ello garantía alguna a las entidades beneficiarias.

10.- Betebeharrak

Erakunde onuradunek ondoko betebeharrak izango dituzte:

a) Jarduera egitea.

b) Gazteriaren Foru Erakundearen aurrean justifikatzea proiektua nola gauzatu den, dirulaguntza emateko oinarri izan diren baldintzak nola bete diren, eta diruz lagundu den proiektuaren zenbatekoa nola gastatu den; horretarako, honako agiri hauek aurkeztuko dira 2008ko azaroaren 28a baino lehen:

- Diruz lagundutako proiektuaren garapena azaltzen duen txostena. Txosten horretan jasotako jardueren gauzatze maila zehaztuko da.

- Gazte plana eta jarduera lerroak jasotzen dituen alea.

- Diru sarreraren eta gastuen zerrenda.

Dirulaguntzaren zenbatekoari dagozkion gastu ziurtagiriak, edo, hala badagokio, kopia konpulsatuak.

Erakundeak aurkeztutako fakturen edo ordainagiriaren jatorrizko agiriak eskatuz gero, agiri horiei zigilu marka jarriko zaie, eta bertan justifikatutako eta eskatutako dirulaguntzak agertu beharko du, baita egiaztagiriaren zenbatekoa dirulaguntza osoari edo zati bati egotzen zaion ere. Azken kasu horretan, dirulaguntzak eragindako zenbateko osoa ere adierazi beharko da.

- Aurkeztutako fakturei dagozkien ordainketa ziurtagiriaren kopiak.

- Diruz lagunduriko proiektuak direla eta, dagozkion tokiko administrazioak langileak kontratatu behar baditu, langile horiei ordaindutakoaren ziurtagiriaren kopiak.

c) Diruz lagundutako proiektuan jasotako jardunak egitean, jardunok Arabako Foru Aldundiko Gazteriaren Foru Erakundearen babesarekin egiten direla jakinaraztea. Horretarako, besteak beste, haren logotipoa erabiliko da.

d) Estatuko edo nazioarteko beste erakunderen batek xede bererako dirulaguntzarik eman badu, horren berri ematea Gazteriaren Foru Erakundeari.

e) Gazteriaren Foru Erakundearekin lankidetzan aritzea hala eskatzen den kasuetan, eta, bereziki, erakunde honetako gazteria teknikariekin, tokiko erakundeentzako laguntza teknikoan eta lagun egiteko lanetan.

f) Arabako Foru Aldundiko Gazteriaren eta Gizarte Sustapenaren Sailak nahiz Ogasun eta Finantza Sailak, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ere, egingo dituzten egiaztatze jarduera guztiak onartzea.

11.- Dirulaguntza itzultzea

1. Berandutze korrituekin batera itzuli beharko da jasotako dirulaguntza honako betebeharrak hauek izango direnean:

- Jarduera eta gastua bidezkotzea.

- Dirulaguntza xede baterako eskatu eta horretarako ez erabiltzea.

- Dirulaguntza eskatutako baldintzak bete gabe lortzea.

2. Diruz lagundutako jarduerarako gehiegizko finantzaketa lortzea ere dirulaguntza itzultzeko arrazoi izango da.

12.- Zigor erregimena

Onuradunak deialdi honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, 38/2003 Legearen 4. tituluaren xedatutakoak aplikatuko zaizkio.

13.- Aurrekontu partida

Deialdi honetako dirulaguntzak direla eta, aurrekontu muga LAUROGEI MILA (80.000) EURO da. Diru hori 71 1 00 10 00 431 99 02 aurrekontu partidatik ordainduko da. Eskaera guztiak ebatzi eta gero, partidako dirua agortu ez bada, soberakina gastatzeko baimena indargabetuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko maiatzaren 29a.- Zuzendari-kudeatzailea, JASONE SOLABARRIETA TXAKARTEGI.

10.- Obligaciones

Las entidades beneficiarias de las subvenciones se comprometen a:

a) Realizar la actividad.

b) Justificar ante el Instituto Foral de la Juventud la realización del proyecto, el cumplimiento de las condiciones que fundamentaron su concesión y la aplicación del gasto del importe del proyecto subvencionado, mediante la presentación de la siguiente documentación antes del 28 de noviembre de 2008:

- Memoria explicativa del desarrollo del proyecto subvencionado, especificando el grado de ejecución de las acciones contempladas en el mismo.

- Ejemplar donde se recoja el plan joven o líneas de actuación

- Relación final de ingresos y gastos.

Justificantes de gasto originales por el importe subvencionado, o, en su caso, copias compulsadas.

En el caso en que la entidad requiriera los originales de las facturas o comprobantes de pago presentados, éstos se marcarán con una estampilla, indicando en la misma la subvención para cuya justificación han sido presentados y si el importe del justificante se imputa total o parcialmente a la subvención. En este último caso se indicará además la cuantía exacta que resulte afectada por la subvención.

- Fotocopia de los justificantes de pago correspondientes a las facturas presentadas.

- Copia de los documentos justificativos del abono a los trabajadores cuando los proyectos subvencionados impliquen la necesidad de contratar personal al servicio de la correspondiente Administración Local.

c) Divulgar la colaboración en todas las actuaciones de los proyectos financiados a través de la presente convocatoria, señalando el patrocinio del Instituto Foral de la Juventud de la Diputación Foral de Alava junto con su logotipo.

d) Comunicar a la entidad concedente la obtención de otra u otras subvenciones para la misma finalidad procedentes de otra administración o ente público estatal o internacional.

e) Colaborar con el Instituto Foral de la Juventud en aquellos supuestos que le sea requerido, y en particular con las y los Técnicos de Juventud de este Instituto para la asistencia técnica y labores de acompañamiento a los entes locales.

f) Someterse a cuantas actuaciones de comprobación efectúen los Departamentos Forales de Juventud y Promoción Social, el de Hacienda y Finanzas, así como el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

11.- Reintegro

1. Procederá el reintegro de la subvención recibida y los intereses de demora correspondientes, cuando se incumplan alguna o algunas de las obligaciones siguientes:

- Justificación de actividad y gasto.

- No cumplir la finalidad para la que la subvención fue concedida.

- Obtener la subvención sin reunir las condiciones requeridas.

2. El exceso de financiación con relación al coste de la actividad subvencionada, también constituirá motivo de reintegro.

12.- Régimen sancionador

La infracción por el beneficiario de las obligaciones recogidas en la presente convocatoria se regularán de acuerdo con lo contemplado en el Título 4º de la Ley 38/2003.

13.- Partida presupuestaria

El límite del presupuesto vigente para la concesión de las subvenciones de la presente convocatoria viene determinado por la cantidad de OCHENTA MIL EUROS (80.000 €), con cargo a la partida presupuestaria 71 1 00 10 00 431 99 02. Si una vez resueltas todas las solicitudes no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización de gasto por el importe sobrante.

Vitoria-Gasteiz, 29 de mayo de 2008.- La Directora-Gerente, JASONE SOLABARRIETA TXAKARTEGI.